
Euskal gobernantza eredu: demokratizazioaz

Alvarez Ortiz, Amalur

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
amalur.alvarez@gmail.com

E

Erabakia desjabetzen eta kontrol demokratikoaren baitan ez dauden eragile globalek gauzatzen duten honetan, ezinbestekoa da erabakitze gaitasunari buruzko eztabaida, gure kasuan, euskal lurraldeek haien erabaki propioen arabera haien burua gobernatzeko daukaten gaitasun instituzionala eta politikoa lehentasunezko erronka bilakatzen da. Demokratizazioa hizpide, azaroak 16ean Donostian aurkeztutako ponentziak azaltzen ditu kronika honek.

Giltza-hitzak: Demokratizazioa. Gobernantza demokratikoa. Lurralde lankidetzak. Aniztasuna. Kohesioa. Subirautza. Erabakimena.

1918. urtetik Eusko Ikaskuntzaren xede eta egiteko nagusia euskal lurraldeen egituratzea eta aniztasunaren bateratzea izan da, ikasketa, hausnarketa eta ekintza propositiboaren bidetik. Horixe izan genuen hizpide azaroak 16ean, Donostiako Tabakalera eraikinean ospatu zen Eusko Ikaskuntzako XVIII. Kongresuaren baitako Gobernantza Demokratikoari buruzko saioan. XX. mende hasieratik Gipuzkoan ospatu zen 6. kongresu-saio honek, bada, une oro eraldaketan dauden gizarte errealitate anitzei ekarpena egitea izan zuen helburu; Iñaki Dorronsoro, Eusko Ikaskuntzako lehendakariaren hitzetan, euskal munduaren zatiketa gainditu eta kooperazioa indartzeko asmoz, gure gizartearen garapena bultzatzeko ideia zein paradigma eta bideorri berriak proposatzea baitagokio Eusko Ikaskuntzari. Gobernantza demokratikoari dagokionez, estatu antolaketa, nazioa eta demokraziaren inguruko teoria eta esperientziek tratamendu zientifiko eta fundamentatu eraberrituak eskatzen ari zaizkigu, abstrakzio horiei buruzko ezagutza eta ulermen prozesuak ez baitira agortuak; hala, saio honen ardatz nagusia, egun dagokigun mendeko testuinguruaren baitan goreneko abstrakzio horiek mamitzea izan zen.

Gobernantza Demokratikoari buruzko kongresu-saio honen edukietara gerturatzen hasteko aukera izan genuen Mario Zubiaga EHUko irakaslearen eskutik. Batetik, modernitateak

azken hamarkadetan eragin duen azkarraldiaz mintzatu zitzaigun, azkartasuna baita bizi dugun garaiaren ezaugarrietako bat –batik bat, informazioa, ezagutza, teknologia zein kapital fluxuen azkartasuna–. Azkartasun horren aurrean, erantzuna bakarra da, hain zuzen, lurraldera itzultzea, elementu tinkoetara bueltatzea, **lurraldean errotutako komunitateetara**. Erantzuna, alabaina, bi moduetan uler daitekela azaldu zigun Zubiagak: ezkortasun antropologikotik datorren erantzuna, xenofobia, gotorkeria, harresiaren; edota, hautu baikorra egin dezakegu, alta, Eusko Ikaskuntzak egindako aukera; lurraldeak eta komunitateak askatasunen, eskubideen, berdintasunen, elkartasunaren eta kohesioaren izenean ulertzea, eta horiek garatzeko eremutat hartzea hain zuzen ere.

Bestalde, euskal demokrazia, hots, demokrazian gobernatzeko euskal eredua ere izan genuen mintzagai. Demokratizazioa azaltzeko Charles Tilly-ren hausnarketak ekarri zizkigun gogora Zubiagak: izan ere, Tilly-ren arabera demokratizazioak hiru zutarrak ditu; lehena, ahalik eta zabalena den **herritartasuna**; bigarrenez, **erabakimena**, hots, herritarrok ahalik eta gai gehien edota gai guztiei buruz erabakitzea eta agintarien lana baldintzatzea; eta hirugarrenik, **arbitraritasunaren ukazioa**, partzialiterako joera ekiditea eskubide eta askatasunen izenean, justiziaren izenean.

Horrenbestez, kongresu saioa bi ataletan egituratu zen; lehenik, kanpora begira jarri ginen: mundu mailan bizitzen ari garen eztabaida ideologiko bizian, nola eta non kokatu euskal lurraldeak eta herritarrok? Zein da gure tokia Europan? Zein harreman mota garatu nahi dugu Espainiarekin eta Frantziarekin? Galdera horiei erantzuteko Bruno de Witte, Ander Errasti eta Mercè Barceló-ren proposamenak izan genituen eztabaidagai. Bigarrenik, barnera begira, euskal lurraldeen eta herritarren erabakimen gaitasunaz hausnartu genuen, Joan Subirats, Argitxu Etxandi eta Jaume López-en hitzartzeen eskutik. Gainera, demokratizazioa kongresu saio honen itsasargia izanik, lanketa kolaboratiboa bultzatu nahi izan zen, herritarrok gure ekarpenak egiteko aukera izan genuelarik dinamika parte hartzaileen bidez. Hori gutxi balitz, euskal lurraldeetako hiru erakundeek, Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernua eta Iparraldeko Euskal Elkargoa, mahai bat osatu eta haien lan ildo eta agendak aditzeko aukera izan genuen, Mikel Antón, Mikel Irujo eta Paxkal Indo ordezkarien eskutik, hurrenez hurren.

Gobernantza demokratikoaren kanpo dimentsioari dagokionez, **Bruno de Witte-k**, Maastricht Unibertsitateko irakasleak eta europar zuzenbidean adituak hartu zuen lehen hitza. Eskualdeek –estatu ez den eta Europar Batasuneko kide izan nahi duen oro– Europar Batasuneko markoan duten eta izan dezaketen protagonismoaz aritzeko, egun batzuk lehenago 25 urte bete zituen Maastricht Ituna hartu zuen abiapuntutzat. Izan ere, egungo Europar Batasuna ulertzeko berrikuntza erabakiorrak ekarri zituen. Batik bat, europar hiritartasuna asmatu zen garaia dugu, zeinaren arabera europar hiritar guztiei mugimendu askatasuna eta trataera berdintasuna aitortzen zaien; Europar Legebiltzerra eta Ministro Kontseiluari eraginkortasun berdintasuna aitortzen dien tresna eta prozedura legegileak sortu ziren; garai honetan ere europar kooperazioa estatu zentraleri dagozkien boteetara hedatu zen, kanpo politika, immigrazioa edota justizia kriminala aintzat hartuz; batasun ekonomiko eta monetarioaren eratzea, euroaren sorrerak markatuta; eta azkenik, lehen aldiz izango da non batasuneko kide diren estatu guztiek ez duten derrigorrez europar politika guztietan parte hartu beharrik –adibiderik argiena Erresuma Batua dugu–. Berrikuntza guzti hauek, Europar Batasunaren integrazio prozesuari dagokionez, jauzi kualitatibo bat suposatu badute ere, egun pairatzen dituen krisi sakonen iturri izan dira de Witte-ren hitzetan, bada, krisi ekonomiko eta finantzarioa edota Erresuma Batuak egindako Brexit hautua.

Bestalde, eskualdeek Europar Batasunaren gobernu sisteman duten tokiari buruz, Maastricht Itunak beste hiru berrikuntza garrantzitsu ekarri ditu, gerora Lisboako Itunak garatu dituena: identitate nazionalerako errespetua, subsidiaritatearen errespetua eta hirugarrenez, aniztasun kulturalarekiko errespetua. Aurrenekoak, Europar Batasunak, printzipio demokratikoan oinarritutako gobernu sistemak dituzten estatu kideen identitate nazionalak errespetatzea dakar. Lisboako Itunak printzipioa sakondu eta identitate nazionalen errespetuan egitura konstituzionalak barneratu ditu, nortasun nazionala oinarritzko egituretan, sistema politiko eta konstituzionalean agertzen baita. Horrez gain autogobernu erregional eta lokalakiko errespetua barneratzen du printzipioak, aitzitik, eskualdeak eta gobernu lokalak estatu bakoitzaren konstituzioak aurreikusitako moduan soilik babesten ditu Europar Batasunak. Subsidiaritate printzipioari dagokionez, europar egitasmo integratzailearen oinarrietako bat bilakatu dena, Lisboako Itunetik aurrera legebiltzar

nazionalen subsidiaritatea kontrolatzeko boterea aitortu zaie, “mecanismo de alerta temprana” bezala ezagutzen den tresnaren bidez. Printzipio honek, ordea, Europar Batasunaren eraginik gabe eskualdeek haien arazo propioak bideratzeko duten gaitasuna errespetatzea barneratzen badu ere, subsidiaritatearen kontrola legebiltzar nazionalen aitortu zaie, eta ondorioz, eskualdeek parte hartze eskasa dute.

Amaitzeko, aniztasun kulturalaren errespeturako printzipioari dagokionez, Europar Batasuna osatzen duten instituzioek aniztasun nazional zein erregionala errespetatzeko betebeharra dute. Praktikan, berriz, betebeharrak ez du babes aktiborik suposatzen, baizik eta aniztasuna ez kaltetzeko betebeharra, baino ez zaie estatuei barne aniztasunaren errespeturako gidaririk ematen. Laburbilduz, de Witte irakaslearen iritziz, egun, autonomia erregionalak eta kultura aniztasunak inoiz baino presentzia handiago dute Europar Batasunaren gobernanta sisteman; horren garapena ordea, estatu kide bakoitzak banaka definitutako markoaren baitan gelditzen da. Hori da egungo argazkia, eta aldaketak etor daitezkenik ez du sinisten de Witte-k, Europar Batasunaren lehentasunen artean ez baitago eskualdeen posizioa eraldatzea. Aldaketak etortzekotan behetik bultzatuta etorriko dira.

Ostera, **Ander Errastik**, *Globernance* Institutuko ikertzaile eta filosofo politikoak globalizazioak dakartzen eraldaketan ondorioz nazioak, nazionalismoak zein demokrazia europarrak nola bir-konfiguratu diren azaldu zigun; finean, bere helburua, Euskal Herriaren erakundetze prozesua ulertzeko orduan, ohiko ikuspegitik haratago doan teoria bat azaltzea izan zen: egungo eraldaketa kosmopolitari erantzuten dion teoria demoikratikoa hain zuzen ere.

Bide horretan, Europar Batasunaren erakundetze prozesuari egin zion lehenik erreferentzia. Izan ere, marko honetan erreformak egiteko beharrak suertatu direnean, aldaketak egiteko ustea gailendu den garaian bi ikuspegi agertu dira: ikuspegi federala eta ikuspegi intergubernamentala.

Lehenengoaren arabera, Europar Batasuna estatu-nazioen gainbeherak dakarren ondorio natural moduan ulertzen da, xedea, estatu federal europar supranazional bat litzateke. Bigarrenak, kontrara, estatu-nazioen subiranotasuna hartzen du gorenago balioztat, eta Europar Batasuna subiranotasun absolutu hauen arteko harreman funtzional eta administratibo huts moduan azaltzen du. Bi ikuspegiak, eraginkortasunaren ikuspegitik, gabezia sakonak agertzen dituzte *Errastiren* aburuz;

alta, federalak aniztasun kudeaketa behar bezala argitzen ez duelako, eta intergubernamentalak, Europar Batasunaren integrazio prozesuarekin topo egitean subiranotasun absolutuaren ikuskera bertan behera geratzen delako eta ondorioz, defizit demoikratikoaren eta kontrol ezaren mamuak agertzen dira.

Bi ikuspegi hauen arazoa nazio-estatuak erreferentziatzen izateak dakar *Errastiren* hitzetan, eta nazio-estatuak ez dute dagoeneko egungo errealitate soziopolitikoak islatzen. Honela, aipatu bi ikuspegiak Europar Batasunak bizi duen eraldaketa prozesuari, kosmopolitizazioari ez die erantzuten. Interdependenzien Europari erantzuteko, non gizarte harreman heterogeneoek geroz eta garrantzia handiago duten, eredu demoikratikoa aurkeztu zigun *Errastik*. *Kalypso Nikolaidis*-en teorizazioari jarraiki, hiru elementu definitzen dute proposamen demoikratikoa: elkarrekin eta ez unitate gisa gobernatzearen asmoa, hierarkiatik eta menpekotasunetik aldentuz; bigarrenik, eredu honek demos aniztasuna demokraziarekin bateragarri ulertzen du; eta azkeneko elementua, elkarren arteko irekiera erradikala litzateke, hots, hiritar eta erakunde mailan interes kooperatiboak barneratzea interes berekoiak ukatuz.

Amaitzeko, Euskal Herriko erakundetze proposamen demoikratiko gisa irakurri ahal izateko zenbait erronka zerrendatu zituen *Errastik*; horien artean, Euskal Herriaren kohesioa eredu bertikaletik aldentzea, aniztasun horizontalean oinarritutako erakundetze prozesua eta “Euskal hiritar europarrak” ideien esanahiaz naiz inplikazioetatik jabetu eta sakontzea dira erronka nagusiak. Laburbilduz, garapenerako hiru behar ondorioztatu zituen: hasteko, Euskal Herriaren garapeneraren erronka munduko erronka edo arriskuekin sinkronizatu beharra; bestalde, barne kohesioa jorratzen jarraitu beharra barne aniztasunari uko egin gabe eta azkenik, Europar Batasunaren etorkizuna helmugatzen hartzea, betiere, munduari aterik itxi gabe.

Segidan, **Mercè Barceló**k, *Universitat Autònoma de Barcelona*-ko zuzenbide konstituzionaleko katedradunak hartu zuen hitza. Gobernanta demoikratikoaren kanpo harremanen atala ixteko, euskal lurraldeek estatuarekin, Frantzia zein Espainiarekin, duten harremana egituratzeko bide bat eskaintzera datorren erabakitze eskubideaz mintzatu zitzaigun, Kataluniako esperientziaren bidetik. Bada, kalean sortu eta manifestazioetako aldarrietan –Euskal Herrian zein

Katalunian– jatorria duen erabakitzeko eskubidearen kontzeptualizazio juridiko eta politiko bat formulatu zuen Barcelók.

Horretarako, lehenik, Katalunian aldarrikatu zeneko testuingurua azaldu zuen, izan ere, zuzenbideak izaera ebolutiboa du katedradunaren iritziz, eta zuzenbidea bera berformulatzen ez denean ere jurisprudentziak eskubide berriak sortzen ditu, herritarrek bultzatutako aldarri eta eskari politikoen ondorioz. Eskubide berriak, beraz, ez dira ezerezetik eratzen, baizik eta herritarren eskari zehatzak erantzutera datoz. Zentzu horretan, erabakitzeko eskubidea, Katalunian, eduki desberdinekin eta testuinguru ezberdinetan aldarrikatua izan da. Hasieran estatutu erreforma prozesuarekin lotuta, autogobernu gaitasun sakonagoa modura aldarrikatzen zen; alabaina, 2010. urtetik aurrera, estatutu erreformaren inguruko frustrazioa hedatzen joan zen heinean, estatu propio baterako aldarrikapena gailentzen hasi zen. Momentu hartan, erabakitzeko eskubideari buruzko eztabaida Kataluniako Legebiltzarrerara iritsi zen, non Estatuarekin hitzartutako prozesu demokratiko modura formulatu zen –2013ko 5/X ebazpenean garatu zen–. Kataluniak bere etorkizun politikoaz bere borondatea agertzeko asmoz bide desberdinak abiatu zituzten instituzio katalanek, batik bat, Eskoziako ereduari jarraitu nahi izan zitzaion Estatuari erreferendum bat deitzeko eskuduntza eskatuz, edota herri kontsultei buruzko legea onartu zuen legebiltzar katalanek zein 9-Nko prozesu partehartzailea. Saiakera guzti hauek, ordea, zapuztuak izan ziren Estatuako instituzio desberdinen eskutik.

Bestalde, Barceló-ren arabera, erabakitzeko eskubidea onartua eta babestua izateko beharra herritarren eskarian eta jada beste herrialde batzuen praktikan oinarritzen da. Hau da, erabakitzeko eskubidea ez da asmakizun bat, egikaritu egin da beste zenbait herrialdeetan, hala nola, Kanadan edota Erresuma Batuan. Formulazioan bat egin ez badute ere, praktika hauek eduki bera garatu dute, hots, printzipio demokratiko konstituzionalaren kontzeptualizazio sustantibo batean oinarritu dira, zeinaren arabera jatorrizko ituna berritua izan daitekeen eta erreferenduma ordenu konstituzionala eraldarazteko bitarteko zilegi moduan agertzen den.

Guzti hau kontutan izanik, beste irakasle katalan zenbaitekin, formulazio juridiko eta politiko bat eskaintzeari ekin ziotela azaldu zuen Barcelók, izan ere, Nazioarteko Zuzenbideak autodeterminazio eskubidearen bidez estatu ez

demokratikoetan kokatutako komunitate politikoei, modu baketsuan eta erreferendum batez baliatuta, haien etorkizun politikoaz erabakitzeko aukera irekitzen badu nolatan izango da ezinezkoa estatu demokratikoen baitan? Barceló-k azaldu zuenez, Espainiako marko konstituzionalak elementu egituratzaile nahikoak eskaintzen ditu erabakitzeko eskubidea onartua izan dadin, bada, lurralde batean kokatutako eta demokratikoki antolatutako komunitate bateko kideen egikaritza kolektiboko eskubide indibidual moduan definitzen badugu, zeinak prozedura demokratikoen bidez komunitate horren estatus politikoa eta oinarrizko marko instituzionala eraldatzeko borondatea azaldu eta gauzatzeko aukera eskaintzen duen, estatu independente baterako hautua barneratuz. Hori bai, formulazio honek, subirautearen titularraren parte hartzea galdatzen duenez sezesio aldebakarrak ez ditu barnebiltzen. Era berean, subirautea titularraren parte hartzea mugatua agertzen da, subirautearen egikaritzak ezin baitu erabakitzeko eskubidearen gauzatzea oztopatu.

Bigarren atalean, esan moduan, euskal lurraldeen barne dimentsioaz eztabaidatzeari ekin zitzaion. Hala, arratsaldeko saioari **Joan Subirats**-ek, zientzia politikoetako katedradunak eta egun Bartzelonako Udaleko Kultura Ordezkarriak eman zion hasiera; demokratizazio prozesu eta kohesio sozialari buruzko hainbat ideia garatu zituen. Egun bizi dugun aro aldaketak erronka berriak dakartza, eta horiei aurre egiteko XX. mendeko ideiak eta XIX. mendeko tresnak –estatu, administrazioa...– baliatzen ditugu, horretan datza egungo arazo zentrala **Subirats**-en hitzetan. Izan ere, garai aldaketak XIX eta XX. mendean gatazkak konpontzeko eraturako bitartekotza esparruak –unibertsitateak, liburutegiak, bidai agentziak, estatuak...– ezbaian jarri ditu, eta XXI. mendeko gatazkei aurre egiteko eraginkorrak diren egiaztatze dago. Batik bat, estatuak geroz eta arazo gehiago agertzen dituzte egungo auziak konpontzeko; zentzu horretan, gertutasuna balio bat bilakatu da ongizateari eta gatazkak ebazteko gaitasunari dagokionez.

Gainera, Subirats-en iritziz, demokratizazioaz eta kohesio sozialaz hitz egitean, aniztasunaren aldagaia, XXI. mendeko aldagai zentral bezala aintzakotzat hartzea beharrezkoa da. XX. mendean tentsio klasikoa berdintasuna eta askatasunaren artekoa zen eta estatalizazioa izan zen erantzun amankomuna –faxista, komunista edota sozialdemokrata–. Egun ordea,

estatalizazioa XXI. mendeko erronkei erantzuteko baliagarria denaren dudak ditugu, logika hierarkiko eta patriarkala baitu. Administrazioaren funtzionamenduak berdintasuna eta homogeneousutasuna nahasten ditu, eta egun berdintasuna eta aniztasuna balioztat hartzen dira, berdintasuna desberdintasunaren kontrako eta aniztasuna homogeneousutasunaren kontrako moduan ulertuz. Arautu, miatu eta zigortzeko diseinatutako administrazio publiko baten eskemak, hots, XIX. mendean baliagarriak zitzaizkigun eta esku hartzerik gabeko administrazio klasiko eta liberal baterako pentsatutako eskema berak baliatu ditugu ongizatearen eremuak kudeatzeko. Kontrara, gaur egun kohesio soziala aniztasuna demokraziaren gako bezala hartzen duen logika batetik landu beharko genuke, demokraziaren oinarria gatazka eta desadostasun egoeretara egokitze duen gaitasunean kokatzen duen logikatik hain zuzen ere.

Bestalde, instituzionaltasunari buruzko eztabaidak publikoak eta instituzionala denaren arteko desberdintzea kontutan izan beharko lukeela azaldu zuen Subirats-ek. Publikoak arazo komunei aurre egiteko gaitasun kolektiboa baita, eta instituzioetatik zein horietatik kanpo garatu daiteke. Instituzionalizatu gabeko komunaren dimentsioa berreskuratu eta indartzea beharrezko da, kohesio sozial handiagoa duten gizarteak, dituzten arazoei aurre egiteko gaitasun kolektiboa duten gizarte horiek dira, hain zuzen estatuarekiko independenteak ez diren gizarteak. Elementu hauen konbinazioak aipatu logika hierarkiko eta patriarkalak, hau da, ikuspuntu kolektibotik negatiboa suertatu daitekeen instituzioekiko dependentzia prozesuak saihesten ditu.

Hitza hartu zuen hurrengoa **Jaume López**, Pompeu Fabra Unibertsitateko zientzia politikoetako irakaslea eta egun Kataluniako eztabaida konstituziogilerako kontseilu aholkulariko kidea izan zen. Bere eskutik aniztasunaren dimentsio kolektiboaz hausnartzeko aukera izan genuen. erabakitze eskubidea, prozesu konstituziogilea eta printzipio demokratikoa, kontzeptu horiek egun izan dezaketen potentzialitate politikoa azpimarratu zuen Lopez-ek, izan ere, ideia berri moduan pentsatzen ditugunean XXI. mendeko ideia bilakatzen dira. Gainera, hasiak gara kontzeptu horien termino gaurkotuak lantzen eta bultzatzen, batik bat, Eusko Ikaskuntzak liburu berde-zuria garatzeko abiatu duen bidean edota Katalunian eratu berri den “Consejo asesor para el impulso del fórum social y cívico para el debate constituyente”-ari jarraiki.

Zentzu horretan, estatu, nazio eta demos kontzeptuak desberdintzea oinarritzeko da gaur egun Lopez-en arabera, XXI. mendeko tresnak eratzten dituzenez XXI. mendeko erronkak lantzeko. Hala, aniztasunaz mintzatzean, norbanakoen eremura mugatzen bagara, herritarron ahaldunderako behar-beharrezko den aniztasunaren dimentsio politikoa ukatzen dugu. Aniztasun indibidualaz gain komunitateen zein komunitateen arteko aniztasunaz mintzatzea funtsezkoa da, bigarren honek soilik eskaintzen baitugu dimentsio politikoa bat, botere erreala –banketxeena, multinazionalena...– aurkatzeko dugun botere bakarra. Horretarako, atomizatutako herritarrak ahaldunduak izan daitezten gutxieneko kohesioa ezinbestekoa da; kontrara, aniztasun indibidualaz eta atomizazioari buruz soilik hausnartzen dugunean aislatuak agertzen gara korporazio handien aurrean, beste botereen aurrean.

Finean, lurraldetasunaz ari gara Lopez-en hitzetan, izan ere, lurraldeak norbanakoon aukera eremua ardatzen baitu, elkartasunaren eremua, lurralde batean fisikoki bizi garen heinean. Hortaz, sare propioak erabiltzen dituen, kohesioa lortzen duen eta gainontzeko botereak aurkatzeko gai den jendearen botere dimentsioaz ari gara, dimentsio demokratikoaz hain zuzen ere. Demokraziak, hala, sistema politikoa moduan, gutako bakoitzari, existitze hutsagatik, hots, pertsonak izateagatik, berdintasunez boterea aitortzen digun sistema da. Alabaina, printzipio demokratikoa garatzen joan den eta irekita jarraitzen duen printzipioa da; hau da, hedatzen joan da bi zentzutan: hautes-errola hazi egin delako eta herritarron erabakiaren menpe dauden gaiak zabaldu direlako.

Erabakitze eskubidea herritarron ahaldunderaren hedapen horrekin lotu zuen Lopez-ek; politikoki iharduteko herritarron boterearen zabalpenarekin. Zehazki, memoria partekatu bat eta elkartasun sareak sortzen dituen kapital sozial bat duelako, horien babesean bere borondatea adierazi nahi duen komunitate politikoa baten defentsarako aldarri nazionala, identitarioa da. erabakitze eskubidea ez da auzi nazionala, eskubide kontu bat da, identitate nazionalak adierazteko helburua duena.

Ikuspuntu honi jarraituz, Lopez-en arabera, argi izan behar dugu subiraniak anitzak direla, baina ez dira teorikoak, egikarituak izan behar dira, eta horretarako tresna berriak behar ditugu, hots, erreferentziazko komunitate politikoa eratu eta diseinu estrategikoan parte hartzeko herritarron

ahalduntzerako tresnak. Printzipio demokratikoa hedatzea ere, epe luzeko erabakiak, alta, herri strategiaren planteamendua gutxi batzuen eskuetan ez uztea baita.

Kongresurekin amaitzeko, **Argitxu Etxandi**-ren, Université de Pau et des Pays de l'Adour-ko ikerlari eta doktoregaiaren ponentzia entzuteko aukera izan genuen. Euskal lurraldeen arteko lankidetzak sakontzeko tresnei buruz mintzatu zen, izan ere, bere ustez, lurraldeen arteko lankidetzak barne kohesioa ez ezik, europaren integrazio prozesua lagundu dezake edota mugaren inguruko politika publiko eraginkorrak bultzatu ditzake, adibidez, uraren kudeaketa, mendiaren politika edota ingurumenaren zaintzaren inguruan sortu daitezkeen arazo komunei erantzuteko.

Zentzu honetan, lurraldeen arteko lankidetzarako, eta gure kasuan, euskal lurraldeen arteko lankidetzarako baliagarriak diren hainbat tresna ekarri zizkigun gogora Etxandik. Hasteko, Europar Batzordeak 2015. urtean garatuta txosten bati buruz mintzatu zitzaigun, zeinak Europaren integrazioa korapilatzen duten hainbat traba zerrendatzen dituen. Txostenak, honela, euskal lurraldeei dagokien mugari buruz –Gipuzkoa-Pirinio Atlantikoko muga– lurraldeen arteko asimetria administratiboa azpimarratzen du arazo nagusi moduan, baita hizkuntza desberdinak erabiltzea dakartzan zailtasunak ere edota garraio azpiegitura eta borondate politiko urria. Guzti honek erabakitze gaitasuna murriztea dakar Etxandiren arabera.

Oztopo horiei aurre egiteko tresna Euro-eskualdea izan ohi dela azaldu zigun Etxandik, Europako strategiari hobekien egokitzen den tresna izanagatik eta eragile publiko eta pribatu ugari mugaz gaindiko erronketan parte hartzea errazten duelako. Horrez gain, estatuen arteko hitzarmenak ditugu beste ohiko tresna; Euskal lurraldeen kasuan lege marko orokorra Frantziak eta Espainiak sinatutako Baionako Itunak garatzen du honek praktikan hainbat muga azaldu dituen arren, Etxandi-ren iritziz. AECT egituraz edota “Agrupación europea de cooperación territorial”, hots, Europak eskaintzen duen tresna berritzaileaz ere aritu zen Etxandi, alta, euro-eskualdeak garatzeko aukera eskaintzen du figura honek eta horixe aukeratu zuen Akitania-Eskualdi euro-eskualdeak 2008an.

Amaitzeko, Ipar Euskal Herriaren egituraketa berriak, 2017an Iparraldean eratutako Hirigune Elkargoak erronka berriak planteatzen dituela baita euskal lurraldeen arteko lankidetzaren arloan ere eta horiek kontutan izan behar ditugula azaldu zuen

Etxandik. Batik bat, eskumen zabalagoak dituen egitura berri honen ordezkarien hautua demokratizatzea beharrezkotzat azaldu zuen, demokrazia bermatzeko tresna berriak sortuz hain zuzen ere.

Bestalde, orain arte azaldutako proposamen eta hausnarketa hauek, hasieran aipatu dugun moduan, hiru euskal erakundeekin partekatze aukera izan genuen, baita bakoitzaren lan ildoak eta agendak entzuteko ere. Izan ere, Euskal Lurraldeen Liburu berdearen diagnostikoan ondorioztatu ahal izan genuen euskal lurraldeen erakundetzeari dagokionez, hainbat aurrerapauso eman direla, Eusko Ikaskuntza sortu zeneko garaiekin alderatzen badugu. Horrekin batera, ordea, aurrera begirako zenbait kezka, proposamen eta ideia azaldu genituen erakundeen etorkizunari buruz. **Mikel Irujo, Mikel Anton eta Paxcal Indoren** eskutik erakundeen begirada jaso eta egindako gogoeta guzti horiek haien esperientzia praktikoarekin alderatzeko aukera izan genuen.

Mikel Irujok, Bruselan Nafarroako Gobernuko delegatua denak, eskualdeok gure marka propioa, ezagutarazteko Europar Batzordeari aukerak baliatu behar ditugula azpimarratu zuen; bada, Europak lan esparru zabala eskaintzen dizkie eskualdeei, eta gainera marka zabaltzeak eragin zirkularra du, hots, kanpoan gure eredua ezagutzera ematen dugu eta aldi berean, etxean kanpoan dugun eraginaz jabetzen gara. **Mikel Anton**, Eusko Jaurlaritzan Europako gaietarako zuzendaria ados agertu zen. Bere iritziz, euskaldunak Europar kokatzeko apustua egitea ezinbestekoa da, naiz eta kritiko izan Europar Batasunarekiko eta eztabaidatu zer nolako Europar bizi nahi dugun. Horrez gain, lurraldeen arteko lankidetzan jarri zuen Anton-ek fokoa; horretarako, batetik, jada ditugun estatu egiturak –itun fiskala...– zaindu eta babestu behar ditugu. Bestetik, hartu harreman ekonomiko eta sozial berriak eraikitzea beharrezkotzat jo zuen Anton-ek, batik bat, atlantikoar ardatz lukeen makro-eskualdearen adibidea aipatu zuen.

Hirugarrenez, **Paxcal Indo**-k hartu zuen hitza, Euskal Herriko Garapen Kontseiluko lehendakariordea demokrazia partehartzaileaz mintzatu zitzaigun iparraldeko ereduaren bidetik; alta, gizarte zibiletik bultzatutako eta eraikitako instituzionalizazio adibide argia dugu. Garapen Kontseilua eta Hautetsien Kontseiluaren arteko konfiantzazko harremana azpimarratu zuen, zeinaren arabera, hautetsiek Garapen Kontseiluaren iritzia kontutan hartzen duten eta hala,

hautetsiek garatutako politikak ez dira inoiz inposatuak. Bi kontseiluen arteko elkarlaneraz horretan oinarrituz eraiki da Euskal Hirigune Elkargoa. Zentzu honetan, bai Irujo-k baita Anton-ek ere eredugarritzat jo zuten iparraldeko eredu; hegoaldean erakundeen aldeko desoreka agertzen da ez baitugu Garapen Kontseiluaren funtzioak betetzen dituen erakunderik eta hori landu beharrean gaudela iritzi dute.

Laburbilduz, hizlarien ekarpenetan demokratizazio kontzeptuak hartu zuen zentralidatea. Izan ere, “erabakiaren desjabetzea” gertatzen ari den garai honetan, hau da, erabakia kontrol demokratikoaren baitan ez dauden eragile globalek gauzatzen duten honetan, ezinbestekoa suertatzen da erabakitzeko gaitasunari buruzko eztabaida, hau da, gure kasuan, euskal lurraldeek haien erabaki propioen arabera haien burua gobernatzeko daukaten gaitasun instituzionala eta politikoa lehentasunezko erronka bilakatzen da. Horretarako, ezinbestekoa da erabakimenaren kanpo zein barne dimentsioari begiratzea, bada, batetik, euskal lurraldeek beste lurralde eremuekin dituzten harremanei; eta bestetik, euskal lurraldeek haien artean eta bakoitzaren barne dituzten harreman egitura eta erabaki sistemei.

Beraz, iritziak iritzi, printzipio demokratikoari jarraiki “burujabetza” gisa defini daitekeen horretan sakontzea ezinbesteko dugu; bai formalki, hau da, euskal lurraldeen gaitasun politikoan; zein materialki, hots, erabakimen guneak izatea, eskumen zalantzaezin batzuekin. Izan ere, erabakiak hartzeko gaitasuna elementu zentrala bilakatzen da euskal lurraldeen kohesioa, elkarkidetzeta eta demokratizaziorako; bada, euskal lurraldeak gure kanpo zein barne erabakietaz jabetzea euskal lurraldeen kohesio eta elkarkidetzan eragin zuzena du.

Amaitzeko esan, Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuak aukera paregabea ematen digula euskal lurraldeetan lortu den demokratizazio eta kohesio mailari mende bateko perspektibarekin begiratzeko. Begirada luze horri heldu genion Donostian ospatutako saioan ere, alabaina, kasu honetan, XXI. mendean euskal lurraldeen demokraziaz eta kohesioaz hausnartzeko eta aurrera begirako urratsak zeintzuk beharko lirakekeen eztabaidatzeko, bai demokrazian eta bai kohesioan sakontzen jarraitzeko xedez.